

# Areatza haitzuloko "Oreinarenen Gordelekua" eta "Zezenaren Plataforma" gordailuen ikerketa arkeologikoa (Galdamiz, Enkarterri, Bizkaia)

(Archaeological research of the "Oreinarenen Gordelekua" and "Zezenaren Plataforma" deposits in the Areatza cave (Galdamiz, Enkarterri, Bizkaia))

Iharritu, Mari Jose  
Gorrotxategi, Xabier  
Harribaltzaga Elkartea  
Unibertsitateetako Etorbidea 6, 5  
48007 Bilbao

BIBLID [1137-4489 (2001), 11; 171-223]

*Historiaurreko bi gordailu ditugu aipagai artikulu honetan, biak Areatza haitzulokoak (Galdamiz, Enkarterri, Bizkaia): "Oreinarenen Gordelekua" eta "Zezenaren Plataforma". Lehenengoa "Oreinemeeen Ganbara" rako galeriaren atarian kokatu zen, baina leku altu eta ezkutuan, eta orein adakera dugu. Bigarrena, "Galeria Nagusia"n dago baina maila altuagoan berarekin elkartzen den galeria baten lehenengo zatian; estalagmita batek ixten du tarte hori leku berezi bat sortuz, plataforma bera. Horko depositua "Zezenen Panel"aren gainean dugu eta paleoaztarna ugari zeuden sakabanatuta espazioan: sukarrizkoak (bizkar ijelkiak, ijelki soilak, printzak,...), hezurrezkoak (bi punta eta orein-letaginak), zeramikak (hatz-atzazal inpresioekin kordetan, besteak beste), kobrezko xafia, animalien hezurrak, ezkur ikaztuak,... Bigarren honetan Historiaurrean zehar izandako erritoen isla aipatzen da, agian Goi Paleolito Aroko irudiekin erlazionatuta. Lehenengoan, ordea, labar irudien eta deposituaren artean lotura estuagoa da, eta santutegi paleolitikoaren ostilamendu ikonografikoaren zatia dela iradokitzen da.*

*Giltz-Hitzak: Historiaurreko gordailua. Santutegia. Paleolito-Neolito Aldiak. Sukarrizko eta hezurrezko paleoaztarnak*

*En este artículo se estudian los depósitos "Oreinarenen Gordelekua" y "Zezenaren Plataforma" de la cueva de Areatza. El primero se coloca a la entrada de la galería que comunica con la sala de pinturas "Oreinemeeen Ganbara", en un lugar elevado y escondido. El segundo, en una galería que a mayor altura enlaza con la principal en la zona del panel decorado "Zezenen Panela"; galería en donde una estalagmita de tierra crea un espacio preciso, la plataforma. En él los paleorrestos son abundantes: líticos (láminas de dorso, láminas, lascas,...), óseos (dos puntas y caninos atrofícos de ciervo), cerámicas (con digitaciones y unguilaciones sobre cordón, entre otras), huesos de animales, bellotas carbonizadas, lámina de cobre. En este depósito se reflejan una serie de ritos realizados durante la Prehistoria, y quizá una relación más directa con el Paleolítico superior. En cambio, en el primero la relación entre el depósito y las imágenes parietales es más estrecha, sugiriéndose que es parte del mobiliario iconográfico del santuario paleolítico.*

*Palabras Clave: Depósito prehistórico. Santuario. Paleolítico y Neolítico. Paleorrestos líticos y óseos.*

*Dans cet article on étudie les résultats de l'investigation sur les dépôts "Oreinarenen Gordelekua" et "Zezenaren Plataforma" de la caverne décorée et habitée de Areatza (Pays Basque). On met le premier à l'entrée de la galerie qui communique celle-ci avec la salle de peintures "Oreinemeeen Ganbara", dans un endroit élevé et occulte. Le deuxième, dans une galerie où la partie la plus haute raccorde à la plus importante là où la zone de la frise décorée "Zezenaren Panela", galerie dont une stalagmite qui la ferme cré un espace précis: c'est à dire la plate-forme. Là les paleorrestes sont abondants: lithiques (lames à dos, lames, éclats,...), osseux (deux pointes et canins atrophiés de cerf), céramiques (avec des cordons avec empreintes digitales, ...), os d'animaux, glands carbonisés, une lame en cuivre. Sur ce dépôt on reflète une série de rités réalisés pendant la préhistoire, et peut-être une relation plus directe avec le Paléolithique supérieur. Par contre, dans le premier la relation qu'il y a entre le dépôt et les images pariétales est plus étroite, en suggérant que celle-ci est une partie du mobilier iconographique du sanctuaire paléolithique.*

*Mots Clés: Dépôts préhistoriques. Sanctuaire. Paléolithique et néolithique. Paleorrestes litiques et osseux.*

## **1. KOBAZULOAREN ZENTZUA ETA KOBAZULOETAKO DEPOSITO ERRITUALAK: ESPAZIOAREN ESANAHIA**

Kobazuloa leku berezia izan da Historian zehar, mundu apartakoa edo misterioitsua, lur azalaren kontrakoa, eta horregatik azken finean, sakratua edo madarikatua. Hori dela eta zenbait errito leku berezi honetan kokatzen dira, batzuk ziurraski iraganeko erritoei lotuta, eta erritoak inguru honetan utzitako objektuen bitartez dira ezagunak. Horren ondorioz, ezezaguna den munduaren isla izateagatik, galduta baitago lotura (galdutako istorio mitikoa) edo kasualitateagatik (kontserbazioa dela eta), nekez litzateke denbora desberdinetako aztarnak ulertzea.

Aztarna batzuen artean dagoen lotura bakarra espazioan sortutako elkar-  
tzea da. Hori askotan gertatzen da, baseliza kobazuloan kokatzen denean, Madalenarena Urallagako haitzulokoan (Urallaga auzoa, Galdamiz) esate bate-  
rako; edo baselizak eta kobazuloak bat egiten dutenean, gauza bereko bi zati izanik, Santa Luzia baselizaren kasuan (Olabarrieta Goitia auzoa, Garape-Sopuerta)<sup>1</sup>. Kasu hauetan lotura subjektiboa da, badakigu zerbait egon zela aurretik baino ez dakigu zehatz mehatz zer izan zen. Dena dela azalpen "tafonomikoa" onartu beharra dago: ez dakigu ezer gure garaietara lotura horren seinalerik txikiak ere irauin ez duelako, espaziorekiko lotura ez bada izan.

Jakina, iraganeko kontuak, istorioak, ez dira kobazuloetan bakarrik islatzen, aire zabalean ere, gizakiak betidanik iraganeko aztarnak interpretatzeko gai izan baita. Esate baterako, monumentu megalitikoetan (Barandiaran J. M. 1974) zuzen zuzenean edo zeharka, monumentu megalitikoaren espazioa erlijioso bihurtuz. Enkarterrian zenbait adibide ditugu: Koltza mendi tontorretako baseliza erromanikoa, Balgerri megalito gunean (Balmaseda-Artzendariz); edo Ventoso mendi tontorrean zegoena Harribaltzaga megalito gunean (Iturriotz-Otañes). Euskal Herrian, trikuharriak deituak, jentil, mairu edo sorgin jeinuen bizilekuak edo hilobiak izan dira gaur egunera arte; baita gordailuaren lekua ("idinarrua", urrez beteta), Estrakinburuko Barrutia tumuluan bezala (Markina). Zenbait kasutan kristautu ziren, otoiitzen bitartez, gurutze grabatuak eginez (Bernoa, kasu, Ataun-Burunda) edo baseliza altxatuz: San Sebastian (Anda, Koartango), San Juan (Laminoria), Kapelamendi (Gasteiz), Santa Engrazia (Gibijo mendizerra) (Barandiaran, J. M. 1974, 226-228).

Aitzitik, eta lehenengo azalpenari jarraiki, gerta daiteke Historian zehar, errito desberdin pilatzea leku berean, haitzulokoan edota aire zabaleko leku batean. Gaur eguneko ere, edo hobeto esanda gure espazioan zabaldutako ohiko gizarteak, gizarte kristauak, Erdi Arotik hona gorde ditu lehenengo zenbait errito, normalean santu baten izenpean, adibidez, San Marcos (apirilaren 25, "Robigalia" festa erromatarren egokitzapen kristaua, jai horren ikurra zezena izanik) edo San Juan (ekainaren 23, abereak eta pertsonak zaintzeko eta landareen fruituak bermatzeko Historiaurreko sutearen erritoaren bidez), (Caro Baroja, J. 1974). Beraz, ez da harrizkoa estratu desberdinetako errituen

---

1. Euskal Herriko zenbait kasu aipatuak izan dira (Barandiaran, J. M. 1974, 34-35).

materialak edo aztarnak leku berean aurkitzea. Batzuk agerian azaltzen dira eta beste batzuk ordea ezkutuan. Zenbaitetan, Gerekizko (Fruiz), Elorriagako (Lemoa) (ik. Gorrochategui, J.; Yarritu, M. J. 1984, 142-143 eta 134-141 hurrenez hurren) edo Boroako (Zornotza) (ik. Gorrochategui, J.; Yarritu, M. J. 1983, 179, 180 eta 195) baselizetan ikusten denez, hiru geruzakoren seinale daude: erro-matar hilarrietan zeinu indoeuroparrak islatzen dira, eta hilarriak eliza kristauaren partekoak dira. Interpreta daiteke kasualitatez erabili zirela, baina argi eta garbi dago ez zeudela edonola ipinita, ikusteko moduan baizik, erai-kin horretara urreratu ziren denek ikus zitzaaten.

Ez da arraroa izan haitzuloetan bizitzaren paleomaterialak aurkitzea, sutondoak, harrizko tresnak eta hezurak. Hilerriaren papera ere bistan dago Historiaurrean barrena, eta ehortz haitzulo asko dugu Euskal Herrian (Apellániz, J. M. 1973, 1974 eta 1975a; Armendáriz, A. 1992; Armendáriz, A.; Etxeberria, F. 1983). Batzuetan ekintza batzuen aztarnak ere dira ikusgai gaur egunean, milurteko dezente pasatu arren, labarretako artea, adibidez. Aurreko goi mailako ekintzen paleoaztarnez gain, beste ekintza apalagoen hondarrak ere aurkituak izan dira, normalean barruan (Bortal kobazuloa zeramika-basoak, Karrantza) (ik. Barandiaran, J. M. 1953, 177<sup>2</sup>), baita batzuetan inguruan ere. Zenbat eta apalagoa den aztarna, orduan eta zailagoa egiten zaigu ekintza horren atzetik dagoen azalpena berreraikitzea, azalpen historikoa egitea. Ahaztu gabe, konplexua izateagatik nekez interpretatzen dela edo modu partzialean. Izan ere, maila desberdin daude aztarna materialen: testuinguru fisikoa (lekua), materiala bera, desagertutako ondoko materialak (balizkoak), kokapenaren ekintza (erritua) eta ekintza horren esanahia (mezua), baita sekuentzia honen errepikapena denboran zehar (leku berean edo ondoko beste leku batzuetan).

Aztarna materialak ez ezik aztarnarik hauskorrenak ere, ahozkoak, protagonista ditugu zenbait kobazulotan. Euskal mitologian, istorioen leku aproposa dugu leize-zuloa zenbait gertaera azal dadin. Haitzuloaren paper desberdinak aurretik aipatu dira (ik. Barandiaran, J. M. 1974, 148): bizilekua, baselizen lekuak eta batez ere jeinuen bizilekuak (Mari, Basajaun, lamiak, Maide, jentilak, mairuak, Erensuge, Sugaar), haietariko batzuk animalia baten eran azaltzen direlarik. Oro har, kobazuloak "Lurraren" zati bat dira eta beraz Lurraren jeinuari ematen zizkioten eskaintza-sariak (txanponak, kasu) bere faboreak lortzeko asmoz. Horregatik kobazuloak baseliza bihurtzen dira (Barandiaran, J. M. 1974, 149).

Beraz, Historiaurrean zehar izandako haitzuloaren erabilera hartzen du zentzua kobazuloan aurkitutako paleoaztarnak. Erabilera guztien artean hiru ditugu nagusi: bizilekua, ehortz lekua eta erritoen lekua. Lehenengo biak askoz ezagunagoak dira, azkena ordea aski ezezaguna. Erritua munduari buruzko interpretazioari dago lotuta eta Historiaurreko gizakiak eskaintza materialen bitartez zehazten du, hala labar-irudiak nola hezurak edota suka-

---

2. Interpretatzen da hildakoen hautsak jartzeko erabiliak zirela, Burdin Aroan, beste haitzuloetakoak bezala, hots, Uriogaina eta Haristoi (Euskal Herriko Iparralde).

rrizko tresnak, besteak beste. Denboran zehar izandako erritoen jarraipena Solacueva-ko bizilekua eta santutegia dugu (Llanos, A. 1991), Brontze Aroan batez ere, baina Erdi Aroa helduz: barnealdean, labar irudiak eta haien ondo-ko gordailuak; atarian, leku batzuetan ikatzak eta hautsak pilatzen dira, zeramikak ere elkartuz eta kasuren batean harriek babestuak (zistaren modukoan); gordailu berezi bat ere aurkitu zen: paretaren bazter batean hiru eskumutur, bat urrezkoa eta beste biak zilarrezkoak, zeramika, ikatza eta hezurrekin batera, eta hauek guztiak harrien estalpean. Horretaz gain harri koskorak eta txanponak (erromatarrek) erritoen ondorioak direla interpretatzen da. Bestalde, hau dena ez litzateke lurperatuekin erlazionatuta izango, hilonoko aspektuekin baizik.

## 2. AREATZA KOBAZULOAREN KASUA

### 2.1. Testuinguru fisikoa eta historiografikoa

*Testuinguru geografikoa.* Areatza haitzuloa Galdamiz (Galdames) eta Garape (Sopuerta) ibarrek osatzen duten eskualdean dago (ik. 1. irud., 1. eta 2. zenbakiak), Enkarterriko erdialdean. Bailara hau hiru mendikatek mugatzen dute: mendebalde eta iparraldean Alén<sup>3</sup> (804 m, 3. znb., 1. irud.)-Betaio (748 m, 4. znb.)-Mello (628 m, 5. znb.); hego-mendebaldean Ubieta (631 m, 6. znb.)-Artegi (635 m, 7. znb.)-Zipar (546 m, 8. znb.)-Longita (594 m., 9 znb.); eta ekialdean, Ganeran (824 m, 10. znb.)-Akendibarko Haitza<sup>4</sup> (804 m., 11. znb.)-Eretza (890 m, 12. znb.), azken bi hauek Umaran-go gainak (254 m., 13 znb.) elkartuta. Bailarako erdian muino batzuk ditugu, Garai eta Murumendi<sup>5</sup> (biak 378 m., 14 znb.), harana bitan banatzeko, ipar-mendebaldean Garape eta hego-ekialdean, Galdamiz. Bestalde, Barbadun ibaiak (Kolitza mendian jaio eta Muskiz aldean itsasoarekin elkartzen dena) aipatutako mendizerrak banatzen ditu (ik. 15 znb., 1. irud.). Ibai arro hauetatik iparraldean C. Urdiales dugu (16 znb.); mendebaldean Agüera ibaia azaltzen zaigu (17 znb.) eta hegoaldean Kadaguako ur korrontea (18 znb.).


*Gordailuen Kokapena.* Areatza haitzulorearen adarrik nagusian zenbait aztarna daude: atarian aztarnategi arkeologikoa eta barrualdean, bi leku desberdinetan, artikulu honetan ikertzen diren gordelekua eta gordailua

---

3. Alén, gastelaniaz.


4. Horrela aipatzen da XVIII. mendean: "Galdames de luso. Tiene situación esta feligresía en una hondonada circuida de montañas y pedregales... con una parroquia de la advocación de San Pedro Apostól situada en la falda occidental del peñascal de Aquendibar o de San Roque" (Iturriza, J. R. 1967, 2, 342-343). "Pico de la Cruz" da gaur egunean.

5. Pico Moro, gaur egunean, Delmas-ek 1896. urtean muino horretaz idatzi zuen: "Al pie septentrional de la colina de la Cerca está situada su iglesia de San Esteban..." (Delmas, J. E. 1980, 500). Areatza auzoko zelai baten izena, Murumendiko maldetan, "La Campa del Castillo" zen 70.eko hamarkadan, agian horrekin erlazionatuta. Bestalde, Gipuzkoako zenbait muinotan Burdin Aroko "kastroa" edo "iluna" agertzen da tontorrean eta "muru" hitza hartzen dute: Murumendi, Murugain,... (Olaetxea, C. 1991, 217).



1. Irud. Enkarterriko lurralde historikoa (1200-1800), Bizkaiko mendebaldean, eta Areatza kobazuloa.

(ik. 2. irud.). Lehenengoa, ataritik 92 metrora aurkitzen da, adar nagusitik ateratzen den bigarren galeriaren lehenengo tartean (ik. 2. irud., 1 zenbakia). Galeria honetatik 33 m. ibili ondoren labar-irudien ganbarara heltzen da (ik. 2. irud., 2 zenbakia), (Gorrotxategi, X. 2000). Bigarrena, 173 metrora, eskuineko aldean (martxaren zentzuari jarraiki kanpotik barrura), baina maila altuagoan, galeria nagusiarekin elkartzen den bigarrenengo galeriaren lehenengo tartean, adar nagusiaren gainean balkoia balitz bezala azaltzen dena (ik. 2. irud., 4 zenbakia). Gordailuaren azpian bertan beste labar-irudi multzoa aurkitzen da, "Zezenaren Tarteunea" hain zuzen (ik. 2. irud., 3 zenbakia).



2. Irud. Areatza haitzuloaren planoa, gordailuen (1, 4) eta labar-artearen (2, 3) kokapenak barne: 1, "Oreinare Gordelekua"; 2, "Orein emeen Ganbara"; 3, "Zezenaren Tarteunea"; 4, "Zezenaren Plataforma".

Eta handituta, bigarren go galeriaren planoa, "Oreinare Gordelekua" seinalatuz.

*Historiografia.* Areatza kobazuloaren aztarnategia 1962ko urtean aurkitu zuen "G.E.V."-ek (Grupo Espeleológico Vizcaino), (Noite, E. 1968, 34). Indusketa arkeologikoak 1972an hasi ziren eta 90eko hamarkada arte luzatu dira (Apellániz, J. M.; Altuna, J. 1975 a, 1975b y 1975c). Arteari dagokionez, "Orein emeen Ganbara"ko labarretako irudiak 1973ko otsailaren hiruan P. M. Gorrotxategik eta familiak aurkitu zituzten eta "Zezenaren Tarteune"koak urte bereko martxoaren hiruan. Gordailuen dagokienez, "Zezenaren Plataforma"koa 1973ko uztailaren 24an aipatutako taldeak atzeman zuen eta "Oreinare Gordeleku"koa, X.

Gorrotxategik eta M. J. Iharritu-k aurkitu zuten 1981eko urtean. Azkenik, "Zezenaren Plataforma" gordailuaren indusketa arkeologikoa 1981eko apirilean burutu zen, X. Gorrotxategi eta M. J. Iharrituren zuzendaritzapean<sup>6</sup>.

## 2.2. "Oreinareen Gordelekua" depositua

*Kokapena.* "Orein emeen Ganbara"ko atarian bertan dago kokatuta depositua (ik. 2. irud., 1 zbk.). Alde horretan eta goiko aldean, galeriaren zorutik 6,5 metrora, galeria labur bat dugu, balkoiaren modukoa, eta zoruan daude aztarnak (ik. 1. arg.). Teorikoki zail zaila da leku horretara ailegatzea baina praktikan eta galeriaren bi aldeetako eraketari atxikiz inolako arazorik gabe eta sokarik erabili gabe hel daiteke aztarnen lekura, aldameneko bi erlaintz motzak erabilia (ik. 2. irud.). Hau dela eta, historiaurrekoek utzi zutenetik hona ez da inor igo guk egin genuen arte. Dena dela, aldapa samurrean daude adar zatiak eta baliteke batzuk, txikiak, aldapan beheara apur bat jaitsi izana, batez ere zati handiekin baldin eta ez ba zuten toporik egin. Galeria labur baten antza du lekuak (ik. 3. irud.), eta bi maila desberdinek osatzen dute, biak aldapan, 6 m. luze izanik; azken tarteak metro bat zabala eta 1,25 m. altua du. Goiko maila 4 azpimailatan dago banatuta eta hirugarrenean, behetik hasita, daude aztarnak (nahiz eta laugarrena eta azkena lauena izan). Horregatik pentsa liteke aldapan beheara jaitsi direla denbora aurrera joan ahala, baina edozelan ere zati guztiak daude elkartuta gune berean. Galeriaren sekzioa borobila eta zabala da baina hormak ez dira bertikalak abonatuak baizik eta ondorioz oso pasillo estua geratzen da zoruren moduan hortik pasatzeko. Pasillo horretan, 30-35 cm bitarteko luzera duena, kokatuak izan ziren hezurak. Bi plano desberdinetan geratzen dira, behekoa aldapatsuegia izanik (ik. 3. irud.).

*Aztarnen deskribapena.* Hasiara hasieratik beren lekuan utzi genituen eta ondorioz ez ditu espezialista batek ikertu. Orduan, orein bat edo batzuen adakeraren zatiak izan daitezke, baina esanahia modu egokian interpretatzeko batean zein bestean berdin litzateke. Egoera txarrean daude, bigundu, harrotu eta arrailduta. Dena dela, honako 17 zati hauek daude lekuan (ik. 4. irud.): bi adakeraren oinarriarenak, garezurren zati banarekin (4. eta 11. zenbakidunak); bi adarretako beheko zatiak (6 eta 9 zenbakidunak); beste bi adarretako erdiko edo goiko zatiak (15 eta 17. zenbakidunak); 8 gehiago, adar nagusien puntak eta bigarren adarkoenak (1, 2, 3, 7, 8, 12, 13, 14) eta azken hirurak zehaztu gabekoak (5, 10, 16). Beraz, bi adar nagusiak errepikatzen direla ohartuta, adakera baten bi adarrak direla esan daiteke, ehizatuak izan den animalia bati dagozkionak<sup>7</sup>.

---


6. Arkeologi ekitaldi honetako partaideei eskerrak eman nahiko genizkieke: Libe Gaubeka, Ana Rosa González, José Luis Martínez eta Ascen Salazar. 1981ko ekitaldia inolako diru-laguntzarik gabe burutu zen. 1983ko urtean 100.000 pezetako subentzioa eman zuen Bizkaiko Diputazioak, Bilboko Euskal Arkeologia Etnografia eta Kondaira Museoaren bitartez.

7. 1999ko bisitan, labarreko irudiei argazkiak egiteko asmoarekin, bi adar zati zapalduak eta lekutik mugiturik izan zirela ikusi genuen eta horregatik jatorrizko kokapenera itzuli genituen.




1. Arg. Areatza haitzuloaren "Oreinareen Gordelekua" depositua, "Orein emeen Ganbara"ren galeriako atarian.





3. Irud. Areatza haitzuloko "Oreinaren Gordelekua"ren planoa.



4. Irud. Areatza kobazuloko "Oreinaren Gordelekua"ren oreinaren adakera puskak.


*Datazioa.* Adakeraren zati bati (3 zenbakiduneko zatia) C14 metodoa erabiliz datazioa egin zitzaion, azeleradorearen bitartez, eta emaitza hauxe izan zen:  $6.020 \pm 150$  B.P. (Ua-3230). Datazioaren tarte kronologikoa, 6.170-5.870 B.P., gazteegi dugu ganbarako labar-irudiekin bat egiteko. Honen aurrean zenbait posibilitate daude hau azaltzeko: bat, kasualitatez edo aproposa egonda leku horretan, espazioan errito ezberdinen pilaketaren ondorioa da eta horrela datazioaren baliotasuna onartuko genuke; bi, erlazioatuta dago labar irudiekin, nahiz eta beste momentu batean, VII eta VI. milurtekoren artean ipini izan leku horretan (espazio errituala edo erlijiosoa izanda), beraz aurrekoaren aldatze txikia; hiru, erlazio zuzena dute adakerak eta barrurago-ko irudiek eta datazioa ezin da onartu.

Teorian ez dago inolako trabarik VII. milurtekoaren azken laurdenean eta VI. milurtekoaren lehenengo laurdenean oreina protagonista duen erritua onartzeko, Historiaurrean zehar momentu guztietan animaliak balio berezia izan baitu, erromatarren aldietara arte, bederen. Edozelan ere, azalpen hau onartzeko horrelako idorokuntzak egin beharko dira gure inguruan, eta bakarrik errepikapenaren bitartez argituko litzateke gakoa. Beraz, zaila da posibilitate hau frogatzea.

Bigarren azalpenak erritoen jarraipena eskatzen du denboran zehar eta lekuaren sakralizazioaren ondorioa dugu. Horrek ez du esan nahi indarrean dagoela arte paleolitikoa, leku berean errito ezberdinen pilaketa arrunta arrunta baita, aurkezpenean azaldu dugun moduan, eta hasieran erlazio txikia duena denbora aurrera joan ahala galdu ohi da. Bigarren honetan ere datazioaren balioa onartuko litzatekeela esan beharra dago.

Hirugarren posibilitate hori, gure ustez, zentzudunagoa dirudi. Erlazio estua espazioaren banaketak ematen dio elkartzeko horri, multzo bat (adakera) hasierako lekuan, bestea (labar irudiak) barrukoan. Horretaz gain, gai edo esanahiaren osagarritasuna erakargarria da: orein arra tarte batean, atarikoan, eta emeak barrukoan (ik. 5. irudia). Horrek eskatzen du datazioaren balio gabetasuna. Hau ez litzateke harrizkoa izango, adakeraren zatien egoera txarra (batez ere adarraren egituran) eta sei milurteko ageriko esposizioa (eta ondorioz, kutsatzeko arriskuaren handitzea) kontuan hartuta. Egia esan, airean (haitzuloetan batik bat) dauden objektuen datazioen porrot-maiztasuna handiagoa da, lurperatuena baino, hauen artean datazio eztabaidagarriak badaude ere, asko. Adibide ugari dugu horretaz, esate baterako Lascaux eta Niaux haitzuloetan, besteak beste (ik. Leroi-Gourhan, Arlette; Allain, J. et Alii 1979 eta Clottes, J. 1995a).

*Interpretazioa.* Tokian utzi zituzten aztarnak lekuan bertan aurkitzen dute esanahia. Baten batek pentsa lezake kasualitatez jarri zituztela baina lekua- ren berezitasuna ez dator bat azalpen honekin: leku urrutia, ezkutua eta galeriaren hasierako tartean kokatuta zeudelako. Kokapena beraz esanguratsua da, eta zentzua ematen dio deposituari. Adakera hau edo hauen aztarnak irudi batzuen papera edo rola bete daitezkeela dirudi: nola labarretako irudi soil batzuk irudi-talde nagusien aurretik dauden (basa-ahuntza galeria nagusiko aretoan, Santimamiñeren kasuan, ik. 6. irud.) hala horren ordeztu irudia



5. Irud. Areatza haitzuloko "Orein emeen Ganbara"n margotutako irudiak.

6. Irud. Santimamiñe (Kortezubi, Bizkaia) kobazuloko lehenengo gelan kokatutako basa-ahuntza.

islatzen den aztarna zuzena (adakera) edo gorputzaren atal horren irudia (adakerak batez ere). Irudi soilak modu propioan interpretatu dira arte paleolitikoari dagokionez: espazio apainduaren aurrealdean daude, espazio apaindua bera seinalatzeko, Oreinarean Gordelekuan gertatzen den bezalaxe (edo gerta litekeen moduan).

Beraz, hau onartuta esango genuke animalia bi modu desberdinetan ager daitekeela lurpeko santutegi batean: zuzen zuzenean, margotutako edo grabatutako irudiaren bitartez (egia esan errealitatearen kopia subjektiboa) eta zeharka, animalia horren zati baten bitartez (askoz ere objektiboagoa). Jakina, lehenengo modua askoz maizago daukagu kobazulo apainduetan eta bigarrena, aldiz, gutxitan agertzen da. Egia esan, kontu honetan hurbilketa tafonomikoa egin beharra dago: labar-irudiak hauskorrak badira ere, lurrean edo hormetan utzitako hezurak edo objektuak, are hauskorragoak. Hau dela eta, orein arraren papera betetzen dute adar hauek eta Orein emeen Ganbaran dauden orein emeen irudien kontrapisua eskaintzen dute, santutegiari zentzua osatzeko asmoz. Interpretazio honetan aztarnen banaketa espazioan esanguratsua da, oso, eta egia esan badakigu zenbait haizulo apaindu paleolitikotan irudiak espazioaren arabera sailkatuta daude, eta horiekien batera mezua.

## 2.3. "Zezenaren Plataforma" gordailua

2.3.1. *Kokapena eta lekuaren deskribapena.* Galeria nagusiarekin elkartzen den bigarreneko galerian aurkitzen da, baina askoz altuago, kobazuloko ataritik 173 metrora (ik. 3. irud.). Galeriaren tarte horretan "Zezenen Panela" dugu eta "Zezenaren Plataforma" horren gainean kokatzen da. Galeriaren azken tarte kolada estalagmitiko batek ia erabat itxita dago (ik. 7. irud., D hizkia) eta honen ondorioz, gela itxiren moduan agertzen da, balkoia balitz bezala galeria nagusiaren gainean. Zezenen Paneletik 4 m. igo behar dira Zezenaren Plataformara heltzeko. Galeriaren zorua ia horizontala da, aldapaxo txikian barrurantz, horma balitz bezala ia galeria osoa ixten duen kolada estalagmitiko batera ailegatu arte (ik. 2. argazkia). Kolada honek, ia bertikala, zulo txiki bat uzten du goiko partean, nondik pertsona bat makurtzen pasa daitekeen. Hortik aurrera galeria horizontala dugu eta honetako azken zatian meatzariek utzitako aztarnak agerian daude.


Hondoko kolada horren eta galeria nagusiaren artean, esan dugun bezala, gela bat eratzen da (ik. 7. irud.), 7 m. luze, 4,5 m zabal eta 3,5 m altu duena. Planta errektangeluarra du eta, horrezaz gain, ezker aldeko horman katazulo bat dugu, 2 x 2 m<sup>2</sup>, era borobilduna eta sakonune batekin erdialdean (ik. 7. irudia, C hizkia eta 3. argazkia). Aztarna arkeologikoak bi gune desberdinetan aurkitu ziren prospekzio lanetan: 1) hondoko estalagmitaren goiko aldean dagoen zulo txiki batean, kolada zeharkatzeko leku bakarra, leiho baten modukoa erdialdean (ik. 7. irudia, D hizkia); 2) galeriaren zoruan barrena eta batez ere katazuloren ondokoan (koadrikulako D6 laukian batik bat), (ik. 3. argazkia).



2. Arg. Areatza haitzulokoaren "Zezenaren Plataforma" gordelekua. Bista orokorra hondoko estalagmitatik.



3. Arg. Areatza haitzulokoaren "Zezenaren Plataforma" gordelekua. Bista orokorra eta eskuin aldean Plataformako Katazuloa.



7. Irud. Areatza haitzuloko Zezenaren Plataformaren plana eta indusketaren koadrikula.

**2.3.2. Azterketa arkeologikoa.** Aurreko prospekzioan zenbait paleoaztarna ikustatu zen eta espazioan zegoen banaketa ere bai. Horregatik, gune desberdinetako aztarnak kontuan hartuta, koadrikula egin zen espazioan (ik. 7. irud.). Material arkeologikoa hiru leku desberdinetan kokatzen zen: 1) Hondoko estalagmitaren goiko zuloan (ik. 7. irud., D hizkia); 2) Galeria eskegiaren ezkerreko aldean dagoen katazuloan, E4 eta F4 laukietan (ik. 7. irud., C hizkia) ; 3) Plataformaren osoko gainazalean, Atik eta Dra bitarteko xingoletan.

Ez zegoen plataforman zehar lur estraturik, hautsa geruza bat baizik, 5 cm baino gutxiagokoa lodi, batez ere zoruaren arrakalak betetzen eta hondoko ama harrian leku askotan agerian genuen. Geruza honek mutur batean, itxiera-koladaren ondoan, C1 laukian, cm 1 lodi zeukan eta D1 laukian 3 cm lodi. Oro har soltea eta iluna zen, hauskara, eta leku gehienetan beste geruza bustitsu eta gogorraren gainean (ez bazegoen harrizko zorua behean, A eta 7 xingoletan bezala). Berriz, Katazuloan (E4 eta F4 laukietan) lur hareatsua, soltea eta horixka zegoen, kareharri eta estalagmita-xaflekin nahastuta, eta 54 cm sakonera ailegatu zen. Zenbait gunetan kolore gorrixka hartzen zuen lurrak lur ikaztuaren azpitik, suarekin erlaziona daitekeena (eta leku batzuetan lur zurixka ere tartekatzen zen). Lur iluna, egur ikatz eta ezkur ikaztuekin nahastuta nabarmenagoa zen C1 laukiaren ondoko laukietan (B2 eta C2 hain zuzen) eta D5en aldekoetan (C6, C7, D6, D7 batez ere). Beraz bi kasu hauetan sutondoan inguruko laukietan, lur iluna erabat sakanututa bazegoen ere plataforma osora (hegoladeko hormaren aldamenean ez zen hain nabarmen agertzen, B6 eta B7 laukietan bezala). Gainera,

sutondo baten hondarrak, harri handi batzuk hain zuzen ere, gune batean (D5-D6 laukietan eta ondokoetan) zeuden bistan, tamalez desordenaturik (agian hortik meatzariak ibili baitziren, hondoko galerian frogatzen den bezala). Horretaz gain, sute batzuen zeregina nabaria zen zenbait paleoaztarnatan: hezur eta ezkur ikaztuak, ikatz puskek eta baliteke zeramika zati batzuk ere bai (azken hauek fabrikazio prozesuarekin nahasten badira ere). Ateratako lur guztia bahetu zen lehorrean leku berean, leku zehatz batean (C1 laukiaren eta hondoko estalagmitaren bitartekoa) gerorako utzita. Lagin bat hartu zen geroxeago teknika berriak erabili ahal izateko (ur bahetzea hain zuzen).

### 2.3.3. *Paleoaztarnen banaketa espazioan eta dagokien kultur aldia.*

Banaketaren azterketa behar beharrezkoa da paleoaztarnak multzo desberdinetan biltzeko eta horren bidez zehaztaperen kronologikoa izateko. Alde bateatik, hondoko estalagmitaren goiko zoruan honako aztarna hauek aurkitu ziren: 1) zeramikazko baso baten zati asko, era oboidea eta irekia, fondo laua, hatz-atzazal inpresioak kordioetan eta ertza loditua eta hatzazal inpresioduna; 2) zeramika baso baten zati bakarra, katazuloren ondoan agertutako basoari dagokiona; 3) sukarrizko ijelkia eta nukleoa; 4) kobrezko ijelkia, apurtua eta apaindua. Bestetik, katazuloren ondoan eta balizko sutondoaren aldamenean, horma aldean, beste zeramika ontzi baten zati asko, berre-raiki daitekeena, era oboidea, hondo laua, erdi eta beheko aldean hatz-inpresioez beteta, eta hatz-atzazal inpresioak xingolatan lepo aldean. Aurrekoez gain, katazuloran honako hauek agertu ziren: 1) oreinarene letagin atrofikoa; 2) hezurrezko punta; 3) sukarrizko bi ijelki handi; 4) bizkardun ijelkia. Eta azkenik, gainerako plataformaren gainazalean hauek: 1) sukarrizko ijelki batzuen zatiak; 2) bizkardun ijelki batzuk; 3) hezurrezko punta; 4) oreinarene letagin atrofiko batzuk; 5) zeramika baso batzuen zatiak, berrerratzeko ezinezkoak.

Gainerako materialei dagokienez, ezkur ikaztu asko berreskuratu ziren, batez ere katazuloran eta ikatz puska asko ere bai. Era berean hezur asko, ia guztiak katazuloran ere bai, plataforman bertan beti oso tamaina txikikoak baitziren. Haien artean batzuk ikaztuta zeuden, letagin batzuetan azaltzen den moduan. Inolako zalantzarik gabe plataforman barrura joandako jendeak desegin ditu horko aztarnak, batez ere hauskorrenak, alegia, hezurrak.

Plataformako Zuloa, gune interesgarrietarikoa dugu, hor ageritako aztarnen artean modernoak ez daudelako, alegia, zeramika. Bestalde, hondoko estalagmitako zuloan ez ziren agertu ez hezurrezko objektuak ezta bizkardun ijelkiak ere. Egoera hauen ondorioz plataforman barrena aurkitutako aztarnak bi leku horietan agertutakoei lotu daitezke, bi momentu desberdin markatuz. Dena dela, objektu mota bat kanpoan geratzen da, sukarrizko ijelkia, bi lekuetan agertu zirelako ijelkiak, estalagmitakoa katazulokoak baino askoz txikiagoa bada ere. Beraz, zeramika bigarren momentuarekin dago erlazionatuta eta ijelki bizkardunak Paleolito Aldiko aztarnekin (arraragoak direlako objektu horiek Kalkolito Aroko aztarnategietan, hala nola IIsu Betaioren kasua –ik. Gorrotxategi, X.; Yarritu, M. J. 1997 eta 1999–) eta modu berean letagin apaindu edo apaindu gabekoak. Hezur puntari dagokienez,

teorian momentu aurreratu batean ager daiteke, baina katazulotik gertu zegoen eta hurbiltasun honek momentu zaharrera bultzatzen du objektu mota hau.


Banaketaren interpretazio honi jarraituz bi momentu desberdinen aztarnak ditugu, Paleolito Aldikoak eta Kalkolito Arokoak. Hortik abiatuta objektu zaharrak sakabanatuak eta apurtuak izan zirela leku horretan Kalkolito Aroan zeramikak jarri zirenean pentsa daiteke. Tarteko objektuak, epipaleolitikoak, ezin dira frogatu, baina interpreta liteke batzuk momentu horrelakoak direla eta ez zaharragoak. Aurreko aztarnak suntsitzeaz gain, batik bat hezurrezkoak (katzuloan edo horma ondoan agertzen baitira), beste batzuk sakabanatu ziren (letagin apainduak edo sukarrizko ijelkiak), hauetariko bat plataformaren mugan bertan berreskuratu baitira. Modu berean Kalkolito Aroan zenbait unetan zeramika baso desberdin utzi ziren, aurrekoak apurtuz, haietariko zati solte batzuk besterik agertu ez direlako.

*2.3.4. Paleoaztarna moten deskribapena eta kokapen zehatza.* Hurrengo materia aztarna mota berreskuratu dira aztarnategian: sukarrizko lanabes eta printzak, hezurrezko puntak eta objektu apainduak, zenbait zeramika ontzi eta metalezko bi objektu zahar eta bat modernoa. Hiru alditan sailka litezke, ziurtasun osoa ez badago ere: 1) Paleolito edota Mesolito Aldikoak (sukarrizko gehiena eta hezurrezkoak); 2) Kalkolito Arokoak, hots, zeramika (bi baso ia osoak, aipatu diren moduan, eta beste hiruren puska batzuk) eta metalezko xafra; 3) XIX. mendeko azken laurdenetik XX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadara bitartea (iltzea). Bestalde, aztarna motak horizontalean ikustatzea garrantzi handiko kontua da estratigrafia argia edo erabat burututa ez dagoenean, kasu honetan bezalaxe. Izan ere, gune zehatz batzuetan biltzen badira aztarna motak, espazio bereizketak azal lezake denboran zehar pilatutako aztarnak (beti kontuan hartuta zenbait aztarna nahastuko direla). Fidegarritasuna ez bada osoa hurbilketa esanguratsua izan liteke.

1) *Hezurrezko aztarnak.* Hiru hezur landuak katazuloaren inguruan kokatzen dira, hormatik gertu (ik. 8. irud.). Beraz, banaketak kontserbazioarekin zer ikusirik daukala pentsa badaiteke ere esan behar da antzeko kokapena behatzen dela beste paleoaztarna motetan. Are gehiago, orein letaginak, aurrekoak baino hauskorragoak direnak, pasabideko esparruan aurkitu ditugu. Izan ere, katazuloan ere berreskuratu genituen orein letagin bat, baina gainerakoak bi multzotan banatzen dira, bat D1 laukian bertan (guztira 6, osoak edo zatiak) eta bestea B2ren inguruan (guztira 6 letagin zati, baina 3 dagozkio edo agian lauri), eta azken bat tartean geratzen da. Jakina, ezin da zehaztu bi lepokoak zirenik edo bitan apurtutako lepoko baten multzoak. Edozelan ere banaketa honek elkartuak utzi zituztela letaginak iradokitzen du. Gainera hezur printzen banaketa berdintsua dugu (ik. aurrerago). Bestalde, Katazuloko letaginak animalia baten aztarnak, hortz aztarnak, ditu eta baliteke orduan hara eraman izana. Beraz, orein letaginak katazuloko aztarna multzotik bereizten dira inolako zalantzarik gabe. Suaren eragina nabarmena da D1 laukiko bi letaginetan (26 eta 27) eta pentsa daiteke gero-geago egindako sua izan zela. Hezur puntak ordea katazuloan eta ondoko



laukietan agertu ziren eta kontrajarriak dira kokapenaren aldetik aurreko aztarnekin (321dun letaginaren esanahia ondo badago) baita esanahiaren aldetik ere.



8. Irud. Hezur landuen banaketa Zezenaren Plataforman (Areatza kobazuloa, Galdamiz). Zenbakien esanahia: 1, letagin atrofikoen kopurua;  $\zeta$  hezur puntak.

1.1) 14 orein-letagin zatien kasuan (ik. 9. irud.) esan behar dugu 11 edo 12 letaginari dagozkiela. Katazuloan aurkitutakoa 321 zenbakiduna dugu, eta honi plataforman aurkitutakoak gehi daitezke: 3 apaindu gabeak dira (26, 27 eta 239); 5 apainduak beheko aldean (198, 199, 200, 201-202-233 eta 256), eta ezin da jakin esekidura zuloaren ondoko dekorazioa zuten ala ez, apurturik baitaude; 1 apaindua esekidura zuloaren ondoan (321), eta beheko aldea erabat eraldatuta (aurreko kasuetan ez bezala); eta bi kasutan ezin da jakin apainduak edo apaindu gabeak ziren, alde bateko zatiak baitira (197, 203). Letaginek honako ezaugarri hauek dituzte:

A1Z.D1.26. Apaindurik gabe, esekidura zulotik apurtua, suak eragindakoa (barrutik husturik), (ik. 9. irud.). Alde batean dauden marrak ez dirudi ornakuntza denik eta zuloaren erakuntzarekin erlaziona daitezke; baliteke ezkata handia prozesu berekin erlazionatzea. Neurriak: Luze= (1,7) cm; zabal= 1,05 cm.; lodi= 0,6 cm. –parentesien artean agertzen badira neurriak horrek esan nahi du zerbait falta zaiola, apurturik baitago–.

A1Z.D1.27. Apaindurik gabe, esekidura zulotik apurtua eta erditik longitudinalean urratuta, suak eragindakoa (ik. 9. irud.). Neurriak: L= 1,56 cm; z= 0,95 cm.; l= 0,6 cm.

A1Z.D1.196. Osoa, baina erditik longitudinalean urratuta (eta horren ondorioz bi zati txiki falta zaizkio), apaindu gabekoa (ik. 9. irud.). Esekidura zuloa egitean urradura handi bat sortu zitzaion alde batean eta beste batzuk,

txikiagoak, kontrakoan. Beraz, oso ondo frogatzen da zuloa egitean bi aldeetatik egin zela lan. Neurriak: L= 2,33 cm.; z= 1,1 cm.; l= 0,73 cm. (guztion artean handiena dugu hau).

A1Z.D1.197. Erdialde eta goiko aldearen zati bat besterik ez, apaindu gabekoa. Ezin dira neurririk hartu (ik. 9. irud.).

A1Z.D1.198. Esekidura zulotik apurtua, alde bateko apaindurarekin, lerro inzisak eratuz (ik. 9. irud.). Apainduraren banaketa: ezkerraldean 4 lerro paraleloan (bat gainean bitan bananduta), agian bosgarren batetik apurtua; eskuinaldean 5 lerro paralelo, baliteke seigarren batetik apurtua; erdian 3 lerro paralelo eta bi gehiago txikiago eta 2 eslaian; lerroen luzera 0,5-4,4 mm bitartekoak. Neurriak: L= (1,55) cm; z= 0,95 cm; l= 0,68 cm.

A1Z.D1.199, Aurrekoa bezala esekidura zulotik apurtua eta alde bateko apaindurarekin, lerro inzisak eratuz (ik. 9. irud.). Barrutik hustuta dugu. Esekidura zuloaren inguruan banatzen dira lerro inzisak: eskuinaldetik hasita eta goitik behera 4 marra labur ditugu paraleloan; kontrakoan ordea 3 lerro (apurtuta baitago) eta erdialdean beste 5 lerro, aurrekoak baino luzeagoak eta modu erradialean, bat izan ezik. Arrakala sortu da lerrorik zuzenenaren alboan. Neurriak: L= (1,23) cm; z= 0,94 cm; l= 0,6 cm.

A1Z.B1.200, aurrekoa bezalakoa dugu, esekidura zulotik apurtua eta alde bateko apaindurarekin, lerro inzisak hain zuzen (ik. 9. irud.). Alde apainduan behoko aldean bi marra motz paraleloan; goiko partean, ezkerraldean 4 lerro paralelo (gehi beste bat azalezkoa); eskuinaldean bi marra paralelo; eta erdialdean bi marra bertikal (hauetariko bat bitan banatuta). Neurriak: L= (0,89) cm; z= 0,87 cm; l= 0,59 cm.

A1Z.B1.201, 202 eta A1Z.B2.233, guztiak letagin bateko hiru zatiak (ik. 9. irud.). Ez da osoa zulotik apurtuta baitago; beste batzuetan bezala behoko aldea apaindurik gabe dago eta goikoaren erdia besterik ez genuen berreskuratatu. Honetan 5 marra motz paraleloan daude, bosgarrenetik apurtuta. Marrak egitean letaginaren gainazala, esmaltea, apurtu egin da ezkatzen modukoak eratuz. Neurriak: L= (1,83) cm; z= 1,07 cm; l= 0,74 cm.

A1Z.B1.203. Letagin zati handi bat, alde bateko erdia modu longitudinalean apurturik, esekidura zuloaren zati bat barne, apaindurarik gabekoa (ik. 9. irud.). Baliteke aurrekoaren zati bat izatea, baina batzeko tarteko beste zati falta delakoan gaude.

A1Z.A2.239. Osoa, apaindu gabea (ik. 9. irud.). Neurriak: L= 1,72 cm; z= 0,99 cm.; l= 0,57 cm.

A1Z.C3.256. Longitudinalean apurtua eta zatitua, goiko aldea besterik ez dago, baina esekidura zuloaren erdia (ik. 9. irud.). Apainduta dago: eskuin aldean eta goitik behera 8 marra labur paraleloan (zortzigarrenetik apurtuta) eta ezkerraldean aurrekoekin zeharkako moduan bost lerro labur (aurrekoak baino luzeagoak dira) paraleloan. Luzeraren aldetik 5 mm-tik 0,5 mm-ra bitartekoak ditugu grabaturiko marrak. Neurriak: ezin dira zehaztu.

A1Z.E4.321. Alde batean apaindurik badago ere bestean beheko aldean erdi apurtuta dago eta animalien hortz markak ditu (ik. 9. irud.). Agian horregatik besteetatik aldenduta zegoen. Teorian goiko apaindura bat etorriko litzateke beste marra batzuekin, baina badirudi azken hauek desagertu zirela. Goiko aldean zenbait marra labur ikusten dira zuloaren inguruan, 3 eskualdean eta 5 kontrakoan, finak eta gehienez jota 1,5 mm luzekoak. Neurriak: L= 1,91 cm; z= 0,95 cm; l= 0,7 cm.


1.2) 3 Hezur puntak (ik. 8. irud.) katazulorekin dute erlazio zuzena, bat (327) zuloan bertan berreskuratu baitzen bi zatitan, eta beste biak (320 eta 403) ondoko laukietan (E3 eta E6 laukiak hurrenez hurren). Erlazio estuagoa dago azken bien artean, hauen gainazalean egindako diseinua, ildaskak paraleloan, antzekoak baitira. Honako ezaugarri hauek dituzte (ik. 10. irud.):

A1Z.E3.320. Bi puntadun hezur baten erdiko zatia, sekzio triangeluarra, alde bat laua eta beste biak, konbexuak (badirudi tresnaren mutur-erdiko zatia dela). Hezurrean barneko egitura agerian dago mutur batean. Alde lauan bi ildo ditu, paraleloak, ertzeetatik hurbilago, erdialdetik baino; beste bietan ildo bana, ertz baten paraleloan. Neurriak: Luze= (3,02) cm, zabal= 0,61 cm; lodi= 0,53 cm.


A1Z.E4.327. Hezur punta, katazuloran aurkitua (bi zatitan banatuta aurkitu zen, bakoitza kolore desberdinetakoa); sekzio obalatu du eta hurbileko zatia eta muturreko punta falta zaizkio, zenbait egite-marka luze, ildaxkak modukoak, agerian daude. Leuntze lana ez zen amaitu eta bistan dago hezur ezpalaren jatorrizko hegala, bai beheko alde osoan bai goiko aldearen hurbileko gunean. Azken honetan ikusten da hezur ezpala lortzeko kontrako bi aldeetatik sakondu zutela hezurrean, geroxeago indarrez apurtu arte, eta apurketarekin batera ezpala bera sortzeko. Leuntze lanaren ildaxkak ertzeen paraleloan eratzen dira, hurbileko muturrean dauden batzuk izan ezik, arkuaren modukoak direnak. Neurriak: L= (9,72) cm, z= 0,70 cm; 0,44 cm.

A1Z.E6.403. Bi puntadun hezurra, bi muturrekoak galduak, sekzio erdikuar drangeluarra duena. Alde batean hezuraren barneko egitura bistan, alde bitan ildo luzea mutur batetik bestera (irregularrak eta desbideratuak, zenbait tartetan lan egiteko orduan erabili zen tresnaren ibilera zalantzakoa baitzen), bestean bi ildo paraleloan ertzeetatik hurbil kokatuta. Alde batean zaindu gabekoa da diseinua eta ildaxka beheko aldean ezkerreko ertzetik abiatzen da, geroxeago desbideratzen da erdialderantz eta eteten da gero erdialdetik jarraitzeko, eta ertzean beste ildaxka bat, laburragoa, agertzeko. Beste batean ildaxka erditik doa baina goiko herenean bitan banatzen da paraleloan muturrerantz (eta txiki bat beherantz), erabat osatuta ez badago ere (geratzen den aldearen diseinua dakar burura, baina erabat osatu gabe). Azkenik, geratzen den aldean hezuraren barne egitura bistan dagoenez bakarrik bi mutur biribilduak azaltzen dira. Neurriak: L= (7,76) cm, z= 0,62 cm; l= 0,53 cm.

2) *Sukarrizko lanabesak*. Espazioan azaltzen den banaketari dagokionez (ik. 11. irud.) 4 zonalde bereizten dira: 1) katazuloa, 11 sukarrizko tresna edo printza baitaude (6 printza eta 5 ijelki, baita beste printza bat ondoko




9. Irud. Zezenaren Plataformako orein letagin apainduak (Areatza kobazuloa, Galdamiz).



10. Irud. Zezenaren Plataformako hezurrezko tresnak (Areatza kobazuloa, Galdamiz).

laukian); 2) C2 laukiaren inguruan, hor 5 ijelki, 3 bizkar ijelki, 2 printza eta zulakaitz bat baitaude; 3) bi ijelki 6 eta 7 xafletan daude besteetatik alden-durik; 4) azken ijelkia hondoko estalagmitaren gainean. Bi gune ere bereizten dira tresna motaren arabera: 1) C1-23 eta B4 laukietan, ijelkiak ez diren tresnak baitaude, bi printzekin batera; 2) gainerakoetan ijelkiak daude baita printza batzuk ere. Bestalde, C2 inguruko gunea bereizten da suak eraldatutako sukarrak (D2.134, E2.35, C2.205 eta 207, B4.298) kokatuta, gainerakoetan ez baitaude (ik. 23. irud.).



11. Irud. Sukarrizko tresna eta printzen banaketa Zezenaren Plataforman (Areatza kobazuloa, Galdamiz). Laburdurak: P printza; I, ijelkia; BI, bizkar zanpatudun ijelkia; Z, zulakaitz.

Bi tresna mota nagusi ditugu. Lehenik, hiru bizkar zanpatudunak, plataformakoak: 257 zenbakiduna, bizkar ijelki baten muturreko zatia, 298 zenbakiduna, bizkar ijelkia eta 206 zenbakia, bizkar punta. Bigarrenik, sukarrizko ijelkiak, hiru katazulokoak (326 –bi marruska fronterekin–, 339 eta 331 zenbakidunak); bizkar naturalaren ijelkia, 351 zenbakiduna, katazulokoa; eta besteak. Beste ijelki batzuk ezin dira zehaztu momentu batean, azaldu dugunez bi lekuetan, katazulooan eta hondoko estalagmitan, agertu zirelako. Hauexek dira: 25, 244, 407, 408 eta 412. Dena dela, haien artean batzuk luzeegi omen dira Kalkolito Arokoak izateko, horrelako neurriak aruntagoak baitira Paleolito Aroan. Oro har, hurrengo 26 sukarrizko aztarnak berreskuratu ziren (ik. 12, 13 eta 14. irudiak):

A1Z.D1.25. Ijelki gris ilun fina, erabilera ukipen gutxi eta finak, taloi laua. Neurriak: Luze= 3,78 cm; zabal= 0,95 cm; lodi= 0,39 cm. (ik. 12. irud.).

A1Z.C1.54. Azalkabetze printza, gris argia, apurtua, ez oso fina. Neurriak: L= -; z= 2,12 cm; l= 0,78 cm.

A1Z.D2.134. Ijelkiaren urrutiko zatia, gris argia, fina, deshidratatua (ik. 12. irud.). Neurriak: L= -; z= 0,97 cm; l= 0,19 cm.

A1Z.E2.135. Ijelki gris argia fina baten hurbileko eta Erdiko zatiak, deshidratatua, suak eragindakoa (zulotxoak), bi zatitan. Neurriak: L= -; z= 0,9 cm; l= 0,22 cm. (ik. 13. irud.).

A1Z.E5.154. Ijelki gris argia, taloi laua. Neurriak: L= 4,94 cm; z= 1,24; l= 0,5 cm. (ik. 12. irud.).

A1Z.E4.164. Ijelki printza, gris iluna, fina. Neurriak: L= 1,88 cm; z= 0,8 cm; l= 0,38 cm. (ik. 13. irud.).

A1Z.C2 edo D2.204. Ijelki gris iluna, fina, taloi laua, muturreko punta besterik ez zaio falta, erabilera ukipen gutxi bi aldeetan. Neurriak: L= 5,3 cm; z= 1,26 cm; l= 0,53 cm. (ik. 12. irud.).

A1Z. C2.205. Sukarrizko printza, gris iluna, fina, apurtua eta suak eraldatua (zenbait ezkata). Neurriak: L= -; z= (1,02 cm); l= 0,21 cm.

A1Z.C2.206. Bizkar zanpatudun punta, gris iluna, fina, ukipen malkartsu zuzenak eskumako alboan (haien artean batzuk inbertsoak) eta txiki batzuk ezkerreko alboaren behealdean. Oinarrian agian zati bat falta zaio (ik. 13. irud.). Neurriak: L= 2,47 cm; z= 0,56 cm; l= 0,27 cm.

A1Z.C2.207. Zulakaitz (?), ijelki gris argi fina baten urrutiko zatia, zenbait zulakaitz-kolpe muturreko bi aldeetan, suak eragindakoen bidez apurtua (ik. 13. irud.). Neurriak: L= -; z= 0,5 cm; l= 1,03 cm.

A1Z.D3.244. Ijelki gris argi fina baten Erdiko eta urrutiko zatiak. Neurriak: L= -; z= 0,92 cm; l= 0,2 cm. (ik. 12. irud.).

A1Z.C3.257. Bizkar zanpatudun ijelkia edo punta, ukipen malkartsu zuzenak eskuineko alboaren goiko aldean eta ezkerrearen beheko aldean ukipen erdi-malkartsuak, gris iluna, kurbatua, muturrik gabe apurturik baitago. Neurriak: L= (3,13 cm); z= 0,53 cm; l= 0,26 cm.

A1Z.B4.298. Bizkar zanpatudun puntaren erdia (hurbileko zatia faltan du), gris argia, deshidratatua, ukipen malkartsuak eta zuzenak ezkerreko alboan (ik. 13. irud.). Neurriak: L= (2,6 cm) ; z= 0,46 cm; l= 0,2 cm.

A1Z.E4.322 + A1Z.E4.324 + A1Z.F4.329. Sukarrizko printza beraren hiru puskak (ez da erabat osatzen), gris iluna, fina, apurtua (urrutiko zatia), (324 zenbakidunarekin batzen da). Neurriak: L= 4,2 cm; z= 2 cm; l= 0,24 cm.

A1Z.E4/F4.323. Ijelki printza, gris iluna, fina. Neurriak: L= 1,77 cm; z= 0,9 cm; l= 0,26 cm.

A1Z.E4.325. Nukleoaren bigarren printza, bizkar naturala ezkerrealdean, gris iluna, fina (ik. 13. irud.). Neurriak: L= 3,47 cm; z= 1,8 cm; l= 0,9 cm.

A1Z.E4.326. Ijelki beltza fina, marruska batekin muturrekoan (desbideratuta badago ere) eta beste bat ezkerrealdeko mutur batean, erabilera-ukipe-

nak bi aldeetan, zuzenak eta inbertsoak, taloia landua. Neurriak: L= 9,04 cm; z= 2,94 cm; l= 0,87 cm (ik. 13. irud.).

A1Z.F4.328. Nukleoaren berrerabiltzean lortutako ijelki printza, muturrean kortex agerian (fina, harri koskorrena dela frogatuz), gris iluna, fina, aurreko lau printz luzearen markak bistan (baita beste batzuk txikiagoak ere), erabilera-ukipenak bi aldeetan. Neurriak: L= 4,46 cm; z= 2,16 cm; l= 0,78 cm. (ik. 13. irud.).

A1Z.F4.330. Ijelki printza, gris iluna, apurtua, fina (muturreko zatia falta zaio), kortexaren arrastoak, eskuineko alboaren erdialdean erabilera-ukipenak azaltzen direlarik (ik. 14. irud.). Neurriak: L= (3,56 cm); z= 1,35 cm; l= 0,6 cm.

A1Z.F4.331. Ijelki beltza fina, kortexaren arrastoak alde bateko bi gune txikitik, erabilera-ukipenak bi aldeetan, taloi laua baina ukipen batzuekin. Neurriak: L= 10,32 cm; z= 2,35 cm; l= 1,1 cm. (ik. 14. irud.).

A1Z.E5.351. Ijelki beltz-marroi fina, bizkar naturala ezker aldean (kortex fina, harri koskorrena), erabilera-ukipenak bi aldeetan, zuzenak eta inbertsoak, taloia faltan (apurtua), lantze-aztarnak beheko aldean agerian (eginberria bota zutenaren isla). Neurriak: L= 6,93 cm (pixka bat faltan); z= 2,48 cm; l= 0,5 cm. (ik. 12. irud.).


A1Z.B6.407 + A1Z.B7.408. Ijelki baten urrutiko eta erdiko zatiak hurrenez hurren, gris ilun gardena, erabilera ukipenak bi aldeetan. Neurriak: L= 6,83 cm (hurbileko zatia falta zaio); z= 1,15 cm; l= 0,43 cm.

A1Z.D6.412. Ijelki txiki baten erdiko zatia, gris iluna, fina, erabilera-ukipenak bi aldeetan. Neurriak: L= -; z= 0,48 cm; l= 0,15 cm.

A1Z.B (hondoko estalagmita).719. Ijelki baten hurbileko eta erdiko zatia, kortex aztarnak ditu ezkerreko ertzean, erabilera ukipenak bi ertzeetan, taloi landua bi aldeetan (ik. 12. irud.). Neurriak: L= (6,75 cm); z= 1,85 cm; l= 0,63 cm.

3) *Zeramika* puska aztarnategia aurkitzean bildu ziren baina bakarrik bi gunetan (ik. 15. irud.): 1) D6-2/4, D5-1 eta E64 D6-3 sektoreetan (azken hauek hormaren ondoan); 2) hondoko estalagmitan zegoen zuloan. Gainerako zatien banaketa, plataforma osoa bete arte, azterketa arkeologikoan eratu zen. Ontzi gorriaren pusken banaketa esanguratsua da: puska gehienak D6-2/4, D5-1, E5-3 eta E64 sektoreetan aurkitu ziren eta gero ondoko laukietan dugu dentsitate altuena; azkenik, puska bat besterik ez zen agertu hondoko estalagmitaren goiko zuloan (ik. 15. irud.). Bi baso nagusien zatien banaketa egin da ikusten da baso bakoitza eremu zehatz bati dagokiola (ik. 15, 16 eta 17. irud.): 1) baso laranjaen zatien bilgunea zen inolako zalantzarik gabe D6-2 sektorea eta ondokoak (E6-4, E5-1), hor aurkitu baitziren 136 puska (98 haien artean zuzenean erlaxionatuta); beste 77 puska plataforman barrena zeuden barreiatuta baina 4, 5 eta 6 xafletan, aurreko multzoaren inguruan hain zuzen; eta azkenik, zati bat besterik ez hondoko estalagmitaren goiko zuloan (kordoi







12. Irud. Zezenaren Plataformako sukarrizko tresnak (Areatza kobazuloa, Galdamiz).

batekin apaindurik), (ik. 15. irud.). Beraz, ez dago erlazionatuta hurrengo baso-arekin. Bigarren ontziaren banaketa oso berezia da (ik. 16. irud.), zatirik inportanteena hondoko estalagmitaren goiko zuloan aurkitu baitzen eta pentsa liteke hori izan zela leku orijinala. Beste puska batzuk sakabanatu ziren behe-rantz, plataformarantz, baina estalagmita honetatik hurbilen dauden laukietara (batez ere B eta C xingoletan eta D1, D2 laukietan), eta orduan pentsa daiteke ez daukala zer ikusirik D6ko sutondoarekin (eta, jakina, estalagmitako goiko aldean dagoen zulotik erori zela). Azkenik, geratzen diren 3 edo 4 basoak (ik. 17. irud.) D6ko sutondoarekin erlaziona daitezke: 1) tamaina erdiko baso marroia 5, 6 eta 7 xafletan aurkitu zen; 2) baso txikia, bi zati besterik ez, C4 laukian; 3) baso laranja txikia (puska bat, zalantzan), plataforman; 4) azken basoa F4 laukian (4 zati). Honako ontzi hauek ditugu:


3.1) Baso laranja eta handia (ik. 18. irud.). Ertz zuzena eta apaindua, hatz inpresioekin; honen azpian gilborraren goiko aldean hiru lerrotan paraleloan kordioak hatz-atzazal inpresioekin, lerro horien artean gainazal laua; honen behean gilbor oboidea hatz inpresioekin; eta hondoa laua. Horrela banatzen dira berreskuratu ziren zatiak: ertza hatz inpresioekin, 5 puska; kordioak hatz-hatzala inpresioekin, 25; gilborra (hatz inpresioekin eta lauak),



13. Irud. Zezenaren Plataformako sukarrizko tresnak (Areatza kobazuloa, Galdamiz).



14. Irud. Zezenaren Plataformako sukarrizko tresnak (Areatza kobazuloa, Galdamiz).




15. Irud. Zeramika pusken banaketa Zezenaren Plataforman (Areatza kobazuloa, Galdamiz): ontzi gorria. Sinboloak:  $\bigcirc$  gune bateko puska kopurua (zirkulu handiago baten barruan badago, puska elkartuak); r zeramika puska bat; rCr puska elkartuak.


103; gilborra (lauak, kordioen artekoak), 25; hondoaren eta gilborraren artekoa (hatz inpresioekin), 9; hondoa laua: 11. Neurriak: hondoaren puskek, 1,6 cm lodi; gilborra inpresioekin, 1-1,4 cm bitartekoak eta lepoarenak, kordioen artekoak, 0,7-0,9 cm bitartekoak; gaineko ertz dekoratua, 0,7-1 cm bitarteko lodi. Ontziaren diametroa esan daiteke hondoan: 19 cm; goian, ordea, ez, puska gehiegi falta direlako.

3.2) Baso marroia (argia kanpoko aldean eta iluna barneko aldean) eta handia (ik. 19. eta 20. irud.). Goiko ertza hatz inpresioekin, kanporantz apur bat bueltaturik; behean lerro bat atzazal inpresioekin zuzenean ontziaren horman; erdi aldean kordoi bat atzazal inpresioekin hormaren diseinua aldatzeko, sartuagoa baita beheko aldea; gilborra laua baina geruza plastikoa gainetik, oso txarto kontserbaturik (ikusten den zatietan hartz markak ditu); eta aurrekoan bezala, hondoa laua. Eskegitzeko 4 zulo ditu (6 pusketan). Hurrengo puskak ditugu: ertza hatz inpresioekin, 14; atzazal inpresioekin, 16; puska apainduak atzazal inpresioekin (sumatzen da batzuetan kordoa, ez beti), 63; gilbor zatiak, 213; puskek zuloarekin, 6; hondoa laua, 18. Neurriak: hondoko lodiera, 1,1-1,4 cm bitartekoa; gilborrarena, 0,8-1,1 cm bitartekoa (kordoa barne); kordioen artekoa, 0,7-1 cm. bitartekoa; ertza dekoratua, 1,1-1,5 cm; ahoaren diametroa ezin da zehaztu; hondoko diametroa, 21 cm; birkonpondutako altuera: 49 cm (lotu gabe oraindik hondoarekin)<sup>8</sup>.

8. Horrelako zeramikazko ontziak berreskuratu dira zenbait kobazulotan: Bortal (Karrantza), era oboidea, hatz markak behetik gora (lepoa falta zaio), hondo laua, eskegitzeko 5 zulorekin; Lumentxa (Lekeitio), era oboidea, lepo zuzena apur bat ixten ahoa, hondo laua, ertzean azkazalen inpresioak, gilborrean behetik gora atzamarren inpresioak, lepoaren erdiko behealdean bi kordoi paraleloan azkazal inpresioekin eta goialdean beste kordoi bat sigi-saga egiten eta apaindura berdinarekin; eta beste batzuk (Apellániz, J. M. 1973, 19-20 eta 60-66 hurrenez hurren).



16. Irud. Zeramika pusken banaketa Zezenaren Plataforman (Areatza kobazuloa, Galdamiz): ontzi marroia. Sinboloak:  $\bigcirc$  gune bateko puska kopurua (zirkulu handienean dauden puskek, elkartuak); j zeramika puska bat (gilbor dekoratuak eta dekoraziorik gabekoak); rCr puska elkartuak; n hondoko puskek; s ertzeko puskek .



17. Irud. Zeramika pusken banaketa Zezenaren Plataforman (Areatza kobazuloa, Galdamiz): gainerako ontziak. Sinboloak:  $\bigcirc$  gune bateko puska kopurua; n, s, l, zeramika ontzi desberdinen puska bat.


3.3) Baso marroia (kanpotik marroi argia, barrutik beltza), aurrekoa baino txikiagoa (ik. 21. irud.). Honako zeramika puskek daude (11 guztira): 4 ertz zuzen apaindu gabekoak, bat kordoi lau batekin (289, 356, 367 eta 432); 1 ertz zuzena baina mutur batekin atxikitzeko (334); 2 kordoi batekin, lauak (338 eta 411); 4 gilbor puska. Neurriak: ertz zuzena, 0,7-0,8 cm lodi; ertzaren ezpaina, 1,2 cm lodi; gilborra, 0,5-0,8 cm lodi; kordoiak: 0,9-1,1 cm lodi.

3.4) Oso txikia den baso bateko ertzaren bi zati (316 eta 317) (ik. 21. irud.). Ertz zuzena, borobildua, hormak beltzak, distiratsuak, espatula baten bidez txukunduak, kaltitzazko desgrasante ugari. Ahoa, gilborra baino txikiagoa dela dirudi. Neurriak: 0,34 cm lodi.


3.5) Tamaina erdikoa den baso baten 4 zati (82, 84, 85, 86 zenbakidunak). Desgrasante lodiak erabiltzen ditu eta bakarrik leku zehatz batean aurkitu ziren, F4 laukian hain zuzen. Neurriak: 0,7-1,3 cm bitarteko lodi.

3.6) Oso txikia den baso baten puska bat, laranja, 0,5-0,6 cm lodi. Plataformakoa (735 zbkia.).


3.7) Azkenik beste zati batzuk aipatu beharra dago, ziurraski baso marroirenak gehiena, gilborrari dagozkion 164 zeramika puska, alegia.



18. Irud. Zezenaren Plataformako zeramikazko ontzi laranja, erdi eta goiko aldea (Areatza kobazuloa, Galdamiz).




19. Irud. Zezenaren Plataformako zeramikazko ontzi marroia, erdi eta goiko aldea (Areatza kobazuloa, Galdamiz).



20. Irud. Zezenaren Plataformako zeramikazko ontzi marroia, erdi eta beheko aldea (Areatza kobazuloa, Galdamiz).





21. Irud. Zezenaren Plataformako zeramikazko ontziak (Areatza kobazuloa, Galdamiz).

#### 4) *Metalezko objektuak.* Hiru dira guztira (ik. 22. irud.):


A1Z.B3.720. Kobrezko xaflaren erdia, mutur batean moztuta dago 45 graduko angelua eginez, alde bat horizontala eta kontrakoa kurbatua (ik. 22. irud.). Erdialdean 5 zulo txiki markatzen dira erdi-zirkulua osatuz, lau txiki eta bosgarrena handiagoa; lau txikietatik hiru ez dira burutu eta laugarren txikia eta bosgarren handia, dauden zulo bakarrek, erditik apurtuta daude. Neurriak: L= 1,93 cm (apurtua); z= 0,96 cm; l= 0,035 cm.

A1Z.B3.721. Azkenik, metalezko (brontzesko) tresna edo apaingarri baten buru borobila, zati bat orduan (ik. 22. irud.). Ezin da zehaztu antzinatasuna baina printzipioz metatze lanekin erlaziona liteke. Diametroa= 1,4 cm.

A1Z.E4.722. Burdinezko iltze zaharra, burua eta sekzioa laukidunak, XIX mendeko meatze lanei lotuta (ik. 22. irud.). Bihurtuta dago (beraz pentsa liteke egurrezko egitura batekin batera ailegatu zela) eta erroilduta nabarmen bai buruan bai ardatzean. Sekzioaren neurria burupean: 0,54 cm; 4,3 cm. luze.

5) *Material arkeologikoen kultura-kokapena*<sup>9</sup>. Teorian objektu batzuk esan-guratsuak dira: zeramika eta metala esate baterako Kalkolito Aroan koka dai-

9. Material modernoak ere aurkitu ziren, meategiri lotuak: buru eta sekzio laukidun iltzea, kasu.



22. Irud. Zezenaren Plataformako metalezko objektuak (Areatza kobazuloa, Galdamiz).

tezke. Hezurrezko puntak eta oreinaren letagin apainduak Goi Paleolitoan eta sukarrizko printzak ordea momentu desberdin baina badirudi lehenengo momentuan hobeto daudela, bestean baino. Horretaz gain ikusi behar da espazioaren bidez erlaziona daitezkeen ala ez. Esate baterako plataformako ekialdean sutondo baten aztarnak daude agerian, hezur printza batzuk suak eraldatu dituelako; eragin hori nabarmena da zenbait sukarrizko tresnatan eta islatzen da ezkur ikaztuetan. Are gehiago, orein letaginaren lepokoa horren inguruan dago. Eta aitzitik ezin da erlazionatu zeramikarekin, bestelako banaketa baitakar horrek: ontzi marroia estalagmitaren gainean egon zen; ontzi laranja D edo E laukian eta gainerako ontziak beste leku batzuetan. Beraz, ez da posible pentsatzea sutea aztarna horiek baino askoz modernoagoa dela; garaikidea baizik. Konklusioan pentsa liteke horiek erlazionatuta izan zirela (are gehiago kontuan hartuta datazioa zeramika baino zaharragoa dela).

Gainerako gainazalean arazo gehiago daude bereizteko teorien eta praktikan, une desberdinetako aztarnak gainjartzen baitira lekuan. Baina bereizteko bat sumatzen da, kontzentrazio handiko bi gune baitaude: ontzi laranja eta plataformako zuloa. Hemen errazago litzateke pentsatzea bi gune eta bi funtzio daudela baina garai berekoak. Bestalde hezurak ez dira erabakiorrak (animaliak ehizatuak izan ziren eta orduan edozein momentutakoak); ezta ezkurak ere.

Arazoa da azaltzea zer zegoen bi ontzi handi horietan eta zergatik besteen ontzien kasuan puska batzuk besterik ez ziren agertzen. Pentsa liteke kontserbazio kontua dela baina oso zaila da azaltzea zergatik ontzi txiki

batzuen puskak oso murriztuak ziren eta handienak ordea ugari. Errazagoa izango litzateke pentsatzea une desberdinetako isla zuzena dela: bakarrik azken unetako ontziak geratu ziren eta aurrekoak kendu egin ziren horiek uztean. Bestalde, goiko ontzian bazegoen ostilamendu bat, sukarrizko ijelki bat eta brontzezkoa.


6) *Fauna*. Hezur printzen banaketa (ik. 23. irud.) hezur landuen antzekoa dugu, bi gunetan banatzen baitira aztarnak: 1) katazuloa da nagusi, 253 printza horko zuloan (irudian A letra duena), 384tik %66, eta inguruko laukiak gehituz, 84 printza, are nagusitasun gehiago, 337, osoaren %88; 2) horretaz gain, hondoko laukietan, C2 laukiaren inguruan 47 hezur printza ditugu, osoaren %12. Gainera, bi gune bereizten dira hezur guztiak kontuan hartuta, bata aztarnarik gabe eta bestea aztarnez beterik, eta horrek indartzen du bi gune horien garrantzia, tarteko hutsunea baita. Badirudi ekintza mugatu batzuen ondorio zuzena dela aztarnen banaketa eta beraz interpreta liteke erlazio estua dagoela esparru bakoitzeko artean, alegia, hezur printzekon zein beste motatakoen artean. Edonola ere, gune bakoitzak paper desberdina izan zuela pentsa daiteke.

Hau zehazteko beste aztarna mota bat ikertu beharra dago. Printza batzuetan nabarmena zen suaren eragina (ik. 23. irud.), batez ere koloreagatik, anizdunak izan arren, beltzetik zurira bitartekoak, portzentajeen asko ez badira ere (25 printz 384tik, %7). Bi gunetan agertzen dira: D5 laukiaren ondoan, non sutondo batekin erlazioa zitezkeen (harrizko egitura baten aztarnak baitzeuden gainazalean, harri handi batzuk, hori bai, desordenaturik), 16 hezur 337tik, %0,5; eta C2 laukiaren inguruan (esparruaren %19, hots, 9 printza 47tik, 11 horko bi letagin atrofikoak kontuan hartuta, biak D1 laukikoak, %22). Azken ideia honek indar gehiago hartzen du beste aztarna motak kontuan hartuta: inguru horretan aurkitzen dira suak eraldatutako sukarriz guztiak (ik. 23. irud.); eta ezkur ikaztu asko ere agertu ziren C1 laukiaren mendebaldeko erdian eta D1 laukian, beste ikatz batzuekin batera (gainerako gehienak E4 laukian berreskuratu ziren). Konklusio gisa pentsa liteke bi sutondo gutxienez egin zirela edo bi gunetan egin zirela sutondoak denbora tarte batean, zenbait sasoiotan. Modu berean pentsa daiteke une zehatzago azaltzen duela bigarren sutondo horrek (C2 laukikoa), oso murriztua baita kantitatearen aldetik eta ondoko atua ez da oso sakabanatu plataforma barrena, letagin atrofikoak, besteak beste.

la hezur guztiak, identifikagarriak behintzat, Plataformako Zuloan, galeriako alboetan aurkitu ziren. Galeriaren gainerako gunean hezur printza txikiak besterik ez ziren bildu, hezurak Historiaurreko erritoen errepikapenaren eta meatzarien bisitaldien ondorioz (azken hauen aztarnak agerian daude galeria honen hondoan bertan) zatitu zirelako. Makrofaunaren<sup>10</sup> hezurrei dagokienez

---

10. Mikrofauna, oso urria, berreskuratu zen, baita molusku bat ere. Horregatik ekintza berezi bat antolatu zen plataforman utzitako lurra urarekin bahetzeko, modu horretan mikrofauna gehitzeko asmoz; beste aztarna txiki batzuk, hezurrezkoak zein sukarrizkoak, lortu ahal izateko; baita, oro har, aurreko ikerketaren balioaren diagnosi zehatza izateko. Hori eginda egur ikatzen eta mikrofaunaren azterketa burutuko da.



23. Irud. Hezur printzen banaketa "Zezenaren Plataforma" (Areatza kobazuloa, Galdamiz). Parentesien artean suak eragindako arrastoak dituztenak. Sinboloak: r suak eraldatutako sukaria; v suak eraldatutako letagin atrofikoa.

43 identifikagarriak dira (54 letagin erabiliak kontutan hartuta) eta haien artean ez daude buru-hezurren eta horzdurarenak, oreinaren letagin apainduak salbu (inbentario honetaz kanpo; kontatuz gero 11 hezur gehiago datozkion oreinari, 29, alegia). Hezurren artean "Capra pyrenica" renak (basa-ahuntza) 25 ditugu eta "Cervus elaphus" enak (oreina) 18 -29 letaginak barne-, ondorengo banaketarekin (Castaños, P 1986, 45):

Hezur mota	C. pyrenaica (Basahuntza)	C. elaphus (Oreina)	Guztira
Saihets	—	8	8
Eskapula	1	—	1
Humero	4	1	5
Radio	1	—	1
Karpo	1	—	1
Izterrezur	7	2	9
Zangar	4	2	6
Belaunburu	—	2	2
Meta-podio	2	—	2
Behatz-hezur	5	3	8
Letagin	—	11	11
Guztira	25	29	54

1. Laukia. "Zezenaren Plataforma" gordailuaren makrofauna, lepoko-letaginak gehituta (Castaños, P 1986).

7) *Egur ikatzak eta ezkurak*. Batzuk eta besteak plataforma osotik sakanatuta agertu ziren, eta orduan F4 laukian ere agertu ziren ezkurak, esate baterako. Ez zen posible bereiztea erabat informazio mota hau, batetik zenbait lekutan ziur aski egoera txarrean ailegatu direlako gure garaietara. Dena dela esan behar da ezkurak leku guztietan aurkitu zirela, bai lur beltzarekin, bai beheko lur zurixkarekin eta baita katazuloko lur horixkarekin ere erlazionatuta. Dentsitaterik altuenak katazuloko izan ziren (agian oso babestuta zeudelako han, E2 laukian gertatzen zen bezala) eta C1 eta C2 laukien artean; ezkur ugari lur beltzarekin erlazionatzen dira (beraz lauki gehienetan ditugu, baina egoera txarrean) eta sutondoetatik urrutien dauden laukietan ordea arraroak dira (A5 laukia). Egur ikatzen puskekin antzeko banaketa dugu, lur beltzarekin batera baitzihoazen; beraz, dentsitaterik altuena D5 ondoko (batez ere mendebaldeko) laukietan zegoen (C6-7, D6-7, E6-7 laukiak batik bat) eta txikiena urrutien zeuden laukietan (B6 eta B7) eta ez oso ugari bi sutondoan arteko laukietan (C4, C5).

2.3.5. *Kronologia*. Paleoaztarnen artean bi lagin, ezkur ikaztuak biak, C14ren bitartez (metodo konbentzionala) datatzera bidali ziren. Lehenengoa E4 laukikoa zen, katazulokoa, harlauza estalagmitiko pean aurkitutako ezkurak, eta bigarrena E6 laukikoa, paretaren ondokoa. Honako emaitza hauek lortu ziren: 1)  $6.970 \pm 130$  B.P (I-13.250); 2)  $3.290 \pm 90$  B.P (I-13.251), hurrenez hurren. Emaitza hauek bestelakoak dira eta ondorioz bakoitzaren balioa zehazteko hurbilketa kritikoa egin beharra dago. Lehenengo soluzioa biak onartzea da, nahiz eta printzipioz irtenbiderik desagokia izan, lagina berdina baita (ezkurak, hain zuzen) eta ziurraski ekintza berdinen bidez utzita. Dena dela, hurrengo hipotesia aipa daiteke, laginak baldintza desberdinetan egon direla, eta modu desberdinetan ere aldatu direla, bata era nabarmenean gaztetuz. Baina horretarako zerbait materiala lotu behar dugu datazioaren emaitzarekin. Eta egia esan ez dago aztarna arkeologikoen artean ezer datazioarekin bat etortzeko: datazioaren tarte kronologikoa 3.380-3.200 B.P (1.430-1.250 K. a., kalibratu gabe) gazteegi dugu aztarnarik berrienak kokatzeko, alegia, kobrezko xafla. Beraz, zentzudunena bigarren datazio hau baztertzea izango litzateke. Baina horrekin ez da bestea itsu-itsuan onartu behar, gaztetu ere gaztetu ahal daitekeelako. Izan ere, trikuharri batzuetan (Bernalta 1, Karrantza) laginen kokapenaren ezaugarrien arabera ditugu emaitzak (ik. Yarritu, M. J.; Gorrotxategi, X. 1995a): goiko laginak gazteenak dira, behekoak zaharragoak, baina guztiak desagokizat har daitezke, garaikideak omen direlako.

Konklusio gisa, aztarna arkeologikoen artean batzuk giza talde batekin bat datoz (7.100-6.840 B.P, 5.150-4.890 K. a., kalibratu gabe), baina ez dakigu ziurtasun osoz VIII. milurteko eta VII. milurtekoaren artekoak diren ala ez. Aztarna arkeologiko batzuk Paleolito Aroan hobeto kokaraz daitezke, oreinarek letagin apainduak batez ere eta besteak oro har Paleolitoan zein Epipaleolitoan (ijelkiak, bizkar ijelkiak). Edozelan ere, gauza bat onar liteke: ezkurak ez dira bat Kalkolito Aroko aztarnekin (zeramika). Azkenik, beste gordailuaren datazioa bi hauen artean kokatuko litzateke, 6.170-5.870 B.P, eta hirurak kontuan hartuz denboran zehar egindako ekintzen emaitzak direla interpretatzeko tentagarri da. Baina gure ustez ilusioa besterik ez da, hirurak

ingurugiroaren baldintzek eraldatuak direlako. Tamalez ezin da ziurtatu erabat aztarna guztien kronologia zehatza.

2.3.6. *Interpretazioa*. Deposituan agertzen diren aztarnak erritoekin erlaziona daitezke, helburu magiko edo erlijiosoekin, plataforma bizilekua ez baita ezta ehorts lekua ere. Beraz ekintza batzuk denboran zehar pilatuta ditugu gune berezi batean, berezitasun hori aukeraketa baten ondorio zuzena izanda (beste leku batzuk aproposak badaude kobazuloan baina ez ziren aukeratu).

Lehenik eta behin kontsiderazio tafonomikoa egin beharra dago: lekuan berreskuratuta utzitakoaren zatia besterik ez da, kontserbazio diferentzialaren ondorioz (batzuk besteak baino hauskorrakoak dira). Horren ondorioz informazioa murrizten da eta baliteke nahikoa ez izatea deposituaren zentzuari heltzeko. Horrez gain, kontserbatuta ez dago leku originalean, leku horretaz kanpo, eta gainera objektuen arteko kontserbazio-maila bestelakoa da. Beraz, guk proposatutakoaren mugak bistan daude eta gure hipotesiak balioa hartuko du bakarrik errepikapenaren bitartez, esate baterako, beste leku batzuetan agertuz gero. Zentzu honetan, dauzkagun aztarna interesgarriak ezezaguna den bidean barrena lehenengo pausuak emateko erabili nahi ditugu. Ildo honi jarraituz errito-espazioa iraganean gaur egunean baino askoz zabalagoa izan zela planteatu daiteke, alegia, Zezenen Panelen inguruan, non marrazki eta grabatuez aparte ezer ez dagoen. Baina inguru hori, plataformaren behekoa bereziki, eraldatua izan zen, erabat, meategiko lanak direla eta, haizuloan barrena pasabidea eraikitzea, dinamita-kargak barne.

Denboran zehar utzitako aztarnak hiru ezaugarri batzutan dituzte: 1) espazio bera konpartitzea, hots, galeria baten azken zatia, kobazuloaren adar nagusiaren gainean; 2) hilotze prozesuarekin zer ikusirik ez izatea; 3) Paleolito Aroko Zezenen Panelaren inguruan kokatzea. Lehenengoari dagokionez, aztarnen pilatzea kasualitatearen ondorioa izan daiteke, baina horren kontrako argudioa gehi daiteke: lekuaren aukeraketarena. Bigarren puntuari buruz ez dago hezur erreen kopuru esanguratsurik, ezta hezur erre printzen leku zehatzik ere, eta ikatz puskak hezur erreekin batera sute zehatzen ondorioagatik azaltzen dira. Beraz, onar daiteke beste erritu batzuei lotuta daudela. Azkenik, hirugarren puntuari dagokionez, horrek ez du esan nahi irudien jatorrizko esanahi bizirik dagoela, baina ez da baztertu behar loturaren bat izatea, oso arrunta baita leku berean denboran zehar errito eta erlijio ezberdinen ikurrak pilatzea (sarreran justifikatu dugun bezala). Azalpen honetan zailtasun bat aurkitzen dugu: Epipaleolito Aroko aztarna eza, gure interpretazioa benetakoa baldin bada. Jakina, esan daiteke datazioak aro horretan daudela, baina aldi berean erabaki dugu ez direla argiak, eraldatuta daudela. Esan ere esan daiteke Epipaleolitoaren tresneria eta Paleolitoarena berdindintsuak direla baina tamalez ezin da zehaztu printza eta tresnen artean zeintzuk izan daitezkeen Epipaleolito Arokoak. Izatekotan, batzuk, Paleolito Arokoak, nabarmenagoak dira (letagin apainduak, esate baterako) eta hauek aldi horietara eramaten dituzte haiekien erlazioatuak berreskuratuta ditugunak (beti zalantzaren bat gorderik). Beraz, Epipaleolitoaren aztarnak ez daude demonstratzerik eta Paleolitoarenak ordea bai.

Beste azalpen bat aztarna epipaleolitikoak aurkitzeko aipa daiteke: ezkurren pilaketaren erritua aldi batekoa izan eta gizakiaren kultura materiala beste batekoa. Ikuspuntu honetatik VII eta VI. milurtekoen arteko datazioa (7.100-6.840 B.P, 5.150-4.890 K. a.) bat dator ehiza taldeekin, kontuan hartuz gure inguruan Neolito zaharrenak, Peña Larga harpean (Errioxa Arabarra)  $6.150 \pm 230$  datazioa duela (6.380-5.920 B.P), (Fernández Eraso, J. 1988, 103 eta, 1997, 161-168). Kantauri Aldean bertan Mesolito eta Neolitoaren arteko datazioak, modernoagoak dira: Tarrerren bizi-haitzuluan (Cantabria),  $5.780 \pm 120$  B.P (Apellániz, J. M. 1971); Herriko Barra aire zabaleko aztarnategia (Gipuzkoa),  $5.870 \pm 170$  B.P), (Mariezkurrena, K.; Altuna, J. 1996); Pico Ramos bizi-haitzulua (Muskiz, Bizkaia),  $5.860 \pm 65$  B.P, (Zapata, L. 1995). Baina hau da onartzeko dagoen zailtasuna: kokapenaren aldetik lotura askoz nabarmenagoa dela ezkur ikaztuen eta zenbait aztarnen artean (hezurrezko puntak, sukarrizko ijelkiak eta orein-letaginaren bat), hots, Paleolito aldekoak.



4. Arg. "Zezenen Panela" (behean eta ezkerrean) eta "Zezenaren Plataforma" (goian, eskualdean), Areatza haitzuluan (Galdamiz).

Beraz, erlaziorik interesgarriena Zezenen Panelen eta Plataformen aztarnen arteko hurbiltasunagatik sortzen da. Hipotesi honetatik aurrera bagoaz gordailuak uzteko orduan aurretik (edo aldi berean lehenengo momentuan) margotuta zeuden irudiek sorrarazi zitezela planteatu daiteke. Hau onartzeko denboran zehar irudiekin izandako esanahiaren jarraipenaren alde izan behar dugu. Egia esan, modu generikoan ikusten da denboran zehar animalien era edo izena duten jainkoak agertzen direla. Adibidez, erromatarren aldiko Akitaniako hilarri edo aldareetan, alde batetik

animaliekin erlazionatuta dauden antroponimoak ditugu (Gorrochategui, Joaquín 1984), erroan "Hars-" eta "Oxson" dituenak (hartz eta otso, hurrenez hurren); eta bestetik animalien izena hartzen duten jainkoak, esate baterako, "Idiatte", "Astoilunno", "Aher-belste", "Herauscorritsehe" (idi, asto, aker eta herrautsen izenak hain zuzen ere). Horrez gain, gorri kolorea agertzen da azken adibidetan, ahozko tradizioan animalia-irudia (zezena, bereziki) hartzen duten jainkoengan bezala. Tradizio honetan lurpeko jainkoak edo aztiak "zezengorri"aren eran agertu ohi dira (Barandiaran, J. M. 1972a, 247-248) Euskal Herri osoan: Otsibarre haitzulooan, Okina lezean, Kapildui kobazuloan eta abar, jarrera mehatsua erakusten, batzuetan ahotik eta sudurretatik sua bota izanez. Beste batzutan adin desberdinetakoa dugu: "txekorgorri" (op. cit., 230-231), "txaalgorri" (op. cit., 228-229), "beigorri" (op. cit., 62), "aatxegorri" (op. cit., 15-16). Ez da harritzekoa orduan haitzuloetako irudien eta ahozko istorioen artean erlazioaren bat proposatzea: "It may be possible to discover some relationship between the Basque myths and the Upper Palaeolithic figurations of the same region" (Barandiaran, J. M. 1974, 25). Jeinu batzuek animalia-irudien, basapiztiaren ("ihizi") era hartzen dute, zezenez gain, behia, zaldia, behorra, akerra, ahuntza, aharia eta txerria (Barandiaran, J. M. 1972a, 102-103). Baliteke beste aztarna batzuk tradizio honekin erlazionatzea, eskultura bihurtuta: Mikeldi idoloa esate baterako, basurdea edo antzeko animalia eta eguzki diskoa bere azpian. Kasu honetan eguzkiak berak iradokitzen du kolore gorria, Atharratzeko harrizko aldarean bezala izenak zuzenean ematen duena (Goyhenetche, M. 1999, 104-105).

Kontua hau izango litzateke: irudien eta objektuen artean erlazio estua zehaztea. Horretarako ekintza mota eta ekintza horien esanahia kontuan hartu behar dugu. Lehenik eta behin erritoen errepikapena bistan dago, eta parik berrienean behintzat frogatuta daitekeena: Plataforman utzitako azken zeramika basoak osoak edo ia osoak berreskuratu genituen, baina aurreko balizko bi basoen zatiak besterik ez genituen aurkitu. Jakina, kontserbazio diferentzialaren eragina ere susma daiteke, are gehiago meatzarien aztarnak galeriaren hondoa aurkitu baitira (eta balizko agenteen eragina ere bai). Baina aztarna arkeologikoen sakabanatzea eta apurketa ez da azaltzen honen arrazoigatik, Historiaurreko gizakiek egindako erritoen errepikapenagatik baizik. Izan ere, zenbait aztarna zoruko arrakalotan agertzen dira eta meatzarien eragina izatekotan apal apala izan zen, Historiaurreko aztarnak txikiak eta bereizteko zailak baitira.

Paleolito Aldian teorikoki kokatutako aztarnak bi espazio desberdinetan agertzen dira (ik. 7. irud.). Lehena, Plataforman, baina hondoko erdian (hezur bi puntaduna izan ezik), hala hezurrezko orein letaginak (bi gune desberdinetan agertuak zirela) nola sukarrizko ijelki bizkardunak. Espazio orokorrean gune bereziak objektu batzuekin agertzen badira antolaketa jakin baten azken hondarrak direla pentsa daiteke, eta horrek esan nahi du jatorrizko kokapenetik hurbil daudela, distantzia txikiko mugimenduak egin ondoren. Eta hau gertatzen da desabantailak nabarmenak daudenean, aldapan egoteagatik edo lurpean ez geratzeagatik (gainazalean egon dira milurtekoetan), eta honen ondorioz zoritik hedatzeko nabarmenagoa denean.



Bigarren kasua, katazulooan, badirudi gizakiak egindako kokapen sekunda-  
ria dela, bat izan ezik orein-letaginak plataforman daudelako. Horren aurrean  
bi posibilitate ditugu: 1) plataforman hartu (beste aztarnekin batera) eta gero  
katazulooan utzi izana; 2) ikurtzat hartu izana, pertsona edo gizakiaren ikurra,  
objektu hori apaingarria baita, bi ijelkiak bezala (aiztoak). Biak, jakina, gehi dai-  
tezke. Errito honekin erlazionatuta beste ezaugarri bat aipatu beharra dago:  
zenbait estalagmita-xafiak eta harrik estaltzen zuten katazulooan utzitako aztar-  
nak (hezurrak, ezkurak eta objektuak) eta hau inolako zalantzarik gabe gizakia-  
ren ekintza ondorio zuzena da, gainerako plataforman horrelakorik ez baitago,  
eta gainera lekua izadi-indarrez kanpo dagoelako (ez dago ur korronteren aztar-  
narik eta izatekotan ñimiñoa zatekeen, ezgai horrelako harriak mugiarazteko).

Konklusio gisa, balizko aztarna paleolitikoen artean zenbait momenturen  
oihartzunak islatzen dira: batean plataforman utzi zituzten aztarnak eta  
hurrengo batean katazulooan bildu ziren batzuk gutxienez, agian plataforman  
zeudenen artean, eta besteak (animalien hezurak) bigarren une horietakoak.  
Dena dela, baliteke antzeko gauzak uztea bi momentuetan: hezurak (plata-  
forman ia erabat deseginda), ezkurak (bietan agertzen dira, baina ugariago-  
ak katazulooan) eta sukarrizko tresnak. Bestalde, aztarna horietan sua  
islatzen da, ezkurren hauen eta ikatz pusken bitartez eta horrez gain hezur  
batzuetan ere bai. Paleolito Aldian beraz, suak egin ziren plataforman, ziu-  
rraski inolako egiturarik gabe (interpretatzen dugu bigarren unean egin zela  
sutondoa), eta ezkurak ikaztu ziren, hezur batzuekin batera. Ezkurak ez diru-  
di Kalkolito Aroko aztarnei lotu daitezkeenik, Plataformako hondoko estalag-  
mitan ez daudelako (dena dela ez du erabat baztertzen honek plataforman bi  
momentuetan utzi izanak, nahiz eta bestea irtenbiderik zentzudunena izan).

Neolito Aroan, zentzu zabalean, zeramikak dira objekturik esanguratsue-  
nak. Zeramika basoekin batera (barrualdean) posiblea da zenbait material  
ere sartu izana. Bigarren momentu honetan suak badirudi egin zirela, suto-  
ndo-egitura baten harriak (tamalez desordenaturik) agerian baitzeuden ezke-  
rraldeko hormaren hurbil (D5 laukia).

Beraz, eskaintzak direla pentsatzen dugu, baina modu desberdinetan azal-  
tzen dira. Landareetatik lortutako jakiak, ezkurak, modu sinbolikoan janak  
ziren: sutera bota ziren eta horren ondorioz ikaztuak ziren (modu horretan apro-  
posa utzita). Animalietatik lortutakoak anizdunagoak dira: makrougatzunak,  
mikrougatzunak eta molusku bat. Makrougatzunen artean gehiena aproposa  
katazulooan utzi ziren eta estali ziren. Horrek ideia bat bultzatzen du: modu sin-  
bolikoan kontsumitu zirela jakiak, ez benetan. Hau horrela bada, sukarrizko aiz-  
toak, oso arraroak hezurrekin nahastuta agertzeko zabortegi den lekuan,  
jatordu horren ikurrak izango lirateke, hots, gizakiaren isla. Errittoa, jatordu  
(zeharka, jaki batzuk ikaztuta besteak lurpean ezkutuak), errittoa horren protago-  
nistarekin (gizakia, zeharka azaltzen dena tresna batzuen bitartez) batera azal-  
tzen da. Jate erritua bitartez egin bada gizakien tresna desberdinak agian  
arrazoi desberdinetatik ere daude hor: batzuk haragi puskekin nahastuta (bi  
hezur-puntak edota bizkar ijelkia), besteak erritoen ondorioa (gizakiaren ikurra,  
aiztoak edota letagin apaindua), edo agian aurreko paleoaztarnen artean egin-  
dako bilketaren ondorioak (bizkar ijelkia eta letagin apaindua).

### 3. BESTE KOBAZULO BATZUETAKO GORDAILUAK

